

Munduko Hizkuntzaren Ondarearen UNESCO Katedra UPV/EHU Munduko hizkuntza-leihoak

HIZKUNTZA: MAPUDUNGUNA

Autoglotonimoa: mapudungun (*lurraren mintzoa*), mapuchedungun (*maputxeen mintzoa*), chedungun (*herritarren mintzoa*), mapuzugun, mapuchezugun eta tsesungun.

Erabilitako beste zenbait izen: mapuche (bereziki gaztelaniaz), araucano.

LURRALDEA ETA HIZTUNAK

Mapudunguna Maputxe Herriaren hizkuntza da, eta *lurraren mintzoa* esan nahi du; gainera, berau da nazioartean erabilera hedatuena duena. Maputxea herritarra da eta *mapudunguna* hizkuntza, Wallmapu herrialdea. Maputxeak Txilen eta Argentinan bizi dira. Guztira 900.000 inguru dira, eta horietatik 600.000 baino gehixeago Txilen bizi dira (2002ko eroldaren arabera) (Wittig, 2007; Sánchez, 2007).

Argentinan Neuquénen, Río Negron, La Pampan, Chabuten eta Buenos Aires herrialdeetan bizi dira. Txileko maputxeen jatorrizko lurraldea gaurko Bio-Bio, La Araucanía eta Los Lagos herrialdeek besarkatzen dutena da, eta lurralde horietan bizi izateaz gain Santiagon ere ugari dira maputxeak. Izan ere, Txileko maputxeen %62 Santiagon eta Temuco hirietan bizi dira (Wittig, 2007; Sánchez, 2007).



Maparen iturria: Uranga *et al.*, 2007.

Argentina aldean bizi diren maputxeetatik 40.000 inguruk baino ez dakite *mapudungunez*. Txilen, oster, 150.000 inguruk hitz egiten dute jatorrizko hizkuntza, eta beste 125.000 inguruk ulertu egiten ei dute.

Mapudungun hiztun gehienak elebidunak dira, eta gaztelaniaz ere badakite. Elebakar gutxi dira, hiztun zahar bakan batzuk baino ez. Gainera, hizkuntza-transmisio eteten ari da oso era bizkorrean, eta gero eta gazte gutxiagok dakite jatorrizko hizkuntza.

HIZKUNTZAREN EGOERA

Mapudungunak ez du ofizialtasun-estatusik, ez Txilen ezta Argentinan ere, eta oso gutxi egiten dute hizkuntza horren alde estatu horietako agintariek. Bada 1993.ean Txilen

onartutako Lege Indigena hizkuntzen aldekoa, baina paper hutsa da. Txilen 1996.ean Hezkuntza Elebidunerako Programa bat abiarazi zen, baina motel eta errenka dihardute aplikazioan agintariak.

Maputxeen artean nortasun etnikoaren berrinterpretatze prozesua sortu da, bereziki hirietan, eta besteak beste, euren hizkuntza ikastea, erabiltzea eta hedatzea bide ez-tradizionaletan ere bultzatzen dute, eta horretan ari dira hainbat talde: sorkuntza literarioan, irratigintzan, hizkuntzaren irakaskuntzan eta kazetaritzan.

Wurm-ek (2001) dioen legez, *mapudunguna* desagertzeko arriskuan dago; Argentinan ez dago ume hiztunik, normalean kanpoan lan egiteko erreserbatik alde egin ez duten emakumeek hitz egiten dute, eta hiztunen artean hizkuntza guztiz menperatzen dutenak eta konpetentzia pasibo hutsa dutenak daude.

Bestalde, oraindik ez dute estandarrik, nahiz hori lortzeko ekimenean diharduten. Gainera, proposamen ezberdinak erabiltzen dira.

HIZKUNTZAREN SAILKAPENA

Mapudunguna hizkuntza amerindiarra da, Araucaniar hizkuntza taldekoa. Baina gaur egun talde horretako bizirik dagoen bakarra da, eta beraz, hizkuntza bakartutat jo daiteke.

Bestalde, *mapudungunak* hainbat dialekto eta aldaera ditu. Hedatuena picunche (iparreko herritarrak), moluche (sartaldeko herritarrak), pehuenche (araucariarrak) eta huilliche (hegoko herritarrak) dialektoak dira, baina alde txikia dute euren artean eta dialekto ezberdinen hiztunek elkar ulertzeko gai dira.

HIZKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Mapudunguna hizkuntza eransgarria, polisintetiko eta atxikitzailea da, eta beraz, atzizkiak erabiltzeko joera du (Sánchez, 2007). Esaldiak, beraz, oinarritzko unitate lexikoari morfemak erantsiz osatzen dira.

tunten tripantü nieymi?
zenbat urte daukazu
`zenbat urte daukazu?`

iney ñi ruka tüfa?
nor GENITIBOA etxe hau
`norena da etxe hau?`

nien (*eduki*)
iñche nien *nik daukat*
eymi nieymi *zuk daukazu*
fey niey *hark dauka*

iñchiu nieyu	<i>guk biok daukagu</i>	iñchiñ nieyiñ	<i>guk daukagu</i>
eymu nieymu	<i>zuek biok daukazue</i>	eymün nieymün	<i>zuek daukazue</i>
feyegu nieygu	<i>haiek biok daukate</i>	feyegün neygün	<i>haiek daukate</i>

HIZTEGITXOA

sero, kiñe, epu, küla, meli, kechu, kayu, regle, pura, aylla, mari, marikiñe
0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11

chao/chaw, chedki, chedki/cheshki, choküm, chuchu, domo chedki/cheshki, domo laku, fotüm, kure, laku, lamngen, malle, müna, ñuke, ñukentu, palu, peñi, weku, chedki/cheche, fütä, kuku,

aita, amaren aita, alabaren semea, arrebaren semea/alaba, amaren ama, alabaren alaba, semearen alaba, aitaren semea, emaztea, semearen semea/aitaren aita, amaren ahizparen alaba/arreba/neba, aitaren anaia, aitaren arrebaren semea, ama, amaren ahizpa/amaren nebaren alaba, aitaren arreba, anaia/amaren ahizparen semea, amaren anaia, amaren aita, senarra, aitaren ama,

ruka, sekül, iyael, ütantu/ngütantu, ange, nge, pilun, wün, yu, namun, küwü
etxea, sehaska, janaria, ohea, aurpegia, begia, belarria, ahoa, sudurra, oina, eskua

Iturria: Hernández *et al.*, 2007.

IDAZKIA ETA AHOTSA

¿Kimi kay chew ñi tripan tati pu ngen?

Fey chi dewmangelu ta mapu, fütachachay ka ñukepapay kom ñi dewmael ñi epu küwü mew. Kake kiñeke chemkün elngey (mawida , wingkul, lelfün mew fey ka elkünungey ti ngen. Fey ti ngen fey ta ngünechen ñi kona reke feley. Fey mew müleyey tati kintuñmakelu ta wingkul (ngen wingkul) fey ti ko mew (ngen ko), fey ti kürüf (ngen kürüf) fey ti kütral mew (ngen kütral), fey ti mapu mew (ngen Mapu). Fey ka dewmangey ta wentru fey elngey nageltu ka dewmangey ta domo ka elngey nageltu mapu mew...

Fütachachay ka Ñukepapay elkünuyey kiñe ngen kake kiñeke ti müleyelu mew (wingkul, Lewfu, etc). Femngechi kake kiñeke ti müleyelu ñi afnoal. Fey ngenole ta ngen, fey ti wüfko angküafuy, ka ti kürüf tripawalayafuy, fey i mawida afafuy, fey ti wingkul lürnagtuafuy, fey mapu kom lürkületuafuy fey ti küra trirakawafuy. Fey femngechi, mapu ta aftuarfuy. Feyngen eluniefi newen kom tüfey chi müleyelu mapu mew kake kiñeke ti mülelu eluniefi reke ta mongen, fey chi mongen elunieyew rumel ñi mongentuleal. Wingkadungun.

ERAKUNDEAK ETA ESTEKAK

<http://www.mapuche.info/>

www.azkintuwe.org

www.serindigena.org/jump/jump.cgi?otrosur.tripod.com/a.htm

http://es.wikibooks.org/wiki/Mapundungun/Lecci%C3%B3n_2-Chum%C3%BCI_akuymi%3F

www.cepchile.cl

http://www.aulaintercultural.org/breve.php3?id_breve=442

ERREFERENTZIAK

Hernández, Arturo, Ramos, Nelly eta Cárcamo, Carlos (2007) *Mapuche. Lengua y cultura. Diccionario mapudungun – español – inglés*. Santiago: Pehuen – Universidad Católica de Temuco.

Sánchez, C.Gilberto (2007) Txileko hizkuntza aniztasuna. Uranga, Belen, Barreña, Andoni, Idiazabal, Itziar, Amorrortu, Estibaliz, Ortega, Ane eta Izagirre, Estibaliz (arg.) (2007) *Amerikako hizkuntza aniztasuna. Mexikotik Hego Konoraino – La diversidad lingüística de América. De México al Cono Sur*. Donostia: Erein, 67-68.

- Uranga, Belen, Barreña, Andoni, Idiazabal, Itziar, Amorrortu, Estibaliz, Ortega, Ane eta Izagirre, Estibaliz (arg.) (2007) *Amerikako hizkuntza aniztasuna. Mexikotik Hego Konoraino – La diversidad lingüística de América. De México al Cono Sur*. Donostia: Erein.
- Wittig, Fernando (2007) Mapudunguna. Uranga, Belen, Barreña, Andoni, Idiazabal, Itziar, Amorrortu, Estibaliz, Ortega, Ane eta Izagirre, Estibaliz (arg.) (2007) *Amerikako hizkuntza aniztasuna. Mexikotik Hego Konoraino – La diversidad lingüística de América. De México al Cono Sur*. Donostia: Erein, 69.
- Würm, S. A. (arg.) (2001) *Atlas of the World's languages in danger of disappearing*. Paris: UNESCO.